



2001EKO OTSAILAREN 22KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko otsailaren bian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkaterearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Beratarutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Igor Sarriegi Zumarraga, Julio Ibañez Urteaga eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira berataratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Alkateak esaten du gaur gertatu den atentatuaren aurrean, eguneko gai zerrendan ez dagoen mozio bat sartzea planteatzen duela presakazko izaeraz, eta hori horrela osoko bilkuraren bozketan jartzen du presakazko izaera hori. Bozketa egin eta aldeko 5 botu (EA), EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (EH) mozio hori presakazko izaeraz tratatzea ontzat ematen da.

Irastortza zinegotziak (EH), puntu hori tratatu aurretik 5 minutuko geldialdia egitea eskatzen du, mozio hori beraien artean aztertu ahal izateko.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, beratarutakoen onespenera aurkezten da 2001eko urtarrilaren 25ean egindako bilkurako akta.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du eztabaidatutako gauza asko ez direla jasotzen, beste batzu soberan daudela edo eta ez direla erabakitakoak eta beraiek ez dutela onartuko.

Bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA), EA, PSE-EE) eta aurkako 3 botuz (EH) aurreko akta hau idatzita dagoen moduan onartzea erabakitzen du.

II.*ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- OROBIONEREN BIRRERAIKUNTZAKO 1GO ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen lehen zertifikazioa aurkeztu dute.

...///...

...///...

Zertifikazio honen zenbatekoa bederatzita milioi laurogeita zortzi mila bederatzirehun eta laurogeita sei (9.088.986,-) pesetatakoa da (54.625,91 €).

Bestalde udal arkitekto teknikoak bere txostenean esaten du zertifikazio honetan proiektuan baino neurketa handiagoak azaltzen direla hainbat kapitulutan eta hori justifikatu egin beharko litzakela.

Hau honela, Osoko Bilkurak, berataratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zertifikazio honen zenbatekoa egindakoaren kontura eta 2. zertifikazioarekin neurketa handiago horiek justifikatzekotan onartzea erabakitzen du.

IV.- ALKATEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Alkateak mozioa irakurtzen du.

Irastortza zinegotziaren (EH) eskariz Alkateak 5 minutuko geldialdia erabakitzen du.

Geldialdiaren ondoren eta bilkurarekin jarraituz Estensoro zinegotziak esaten du lehen irakurritako mozioari aldaketa txiki batzuk sartu dizkietela eta bere onarpenerako aurkezten dena honako hau dela:

“Gaur goizean Donostiako Martutene auzoan, Iñaki Dubreuil Churruca egun Ordi-ziako udaleko zinegotzi den, eta aurreko agintaldian Lazkaoko udal honetan Eskola Tailerreko zuzendari izan zenaren aurka zuzendutako atentatuaren aurrean zera adierazi nahi genuke:

Lehenik eta behin, bertan erahilak suertatu diren Jose Angel Santos Larrañaga eta Josu Leonet Azkunereren sendi eta lagunei elkartasun osoa adierazi, hala nola, gertakari krudel honetan afektatuak izan diren guztiei ere.

Bigarrenik, zentzurik gabeko atentatu bortitz hau erabat gaitzesten dugu. Herriaren ordezkari baten aurka gauzatu nahi izan eta bi langileren bizitza errotik moztu duen atentatu hau euskaldun guztion aurkako atentatua besterik ez da.

Bereziki, Udal honetako Eskola tailerrean bere zerbitzuak eskaini izan dituen Iñaki Dubrehuili, gure elkartasuna eta babesa adierazi.

Azkenik, Udaletxe honetatik, hiritar guztiei deialdia luzatzen diegu atentatu honen aurkako gaitzespena eta eragina sufritzen dutenekin elkartasuna adierazi dezaten, horretarako deituak izango diren mobilizazioetan parte hartuaz.”

Alkateak esaten du honez gain mozio honen berri eman eta deialdia bando moduan egitea proposatzen dela baita ere.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du abstenitu egingo direla, alde batetik beraiek dokumentua egiterakoan inolako partehartzerik izan ez dutelako eta beste alde batetik esaten du, ekintza guzti hauekin bukatzeko era bakarra elkarrizketa delako.

...///...



...///...

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du era honetako azterketa asko egin dituztela eta besterik gabe onartu egingo dutela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA), EA, PSE-EE), aurkako bo-
turik gabe eta 3 abstentzioz (EH) mozioa onartzea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,
gaueko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen
dudalarik.

